



**ZUBI ZAHARRA IKASTOLA
SOZietATE KOOPERATIBO
ENPRESAREN ETA BALMASEDAKO
UDALAREN ARTEKO HITZARMENA**

**CONVENIO ENTRE ZUBI ZAHARRA
IKASTOLA SDAD. COOP. Y
AYUNTAMIENTO DE BALMASEDA**

Balmasedan, 2024ko uztailaren 30ean,

En Balmaseda a 30 de julio de 2024

AGERTU DIRA

COMPARECEN

Alde batetik, Alfonso San Vicente de la Horra jauna, Balmasedako Udaleko alkatea; alkate izendatu zuen Balmasedako Udalbatzak, 2023ko ekainaren 17an egindako ezohiko bilkuran, eta, bilkura horretan, kargua hartu zuen.

De una parte, D. Alfonso San Vicente de la Horra, Alcalde del Ayuntamiento de Balmaseda, que fue elegido Alcalde en sesión extraordinaria de la Corporación de fecha 17 de junio de 2023 y tomó posesión de su cargo en la misma sesión.

Bestetik, Alvaro Parro Betanzos jauna (NAN zk.: 16575930-Z), Zubi Zaharra Ikastola kooperatiba-sozietatearen izenean eta ordezkaritza diharduena, lehendakari den aldetik.

De otra parte D. Alvaro Parro Betanzos, con D.N.I. nº 16575930-Z, que actúa en nombre y representación de Zubi Zaharra Ikastola Sociedad cooperativa, en su condición de Presidente.

Bi alderdiek legezko eta jarduteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta emandako hezkuntza-zerbitzuaren funtzionamendu-gastu arruntak finantzatzeko sinatzen dute hitzarmen hau, honako artikulua hauekin:

Ambas partes se reconocen mutua capacidad legal y de obrar y suscriben el presente convenio para financiación de gastos corrientes de funcionamiento del servicio educativo prestado, con el articulado que se señala

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus

I.- Zubi Zaharra Ikastola Sozietate kooperatiboa itunpeko ikastetxe baten titularra da. Ikastetxe horrek D eredua eskaintzen du Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Haurtzaindegian eta D.B.H.n, Balmasedan eta bere eskualdean. Zubi Zaharra Ikastolan sartzeko irizpideek berdintasun-printzipioa errespetatzen dute, eta ez dago diskriminaziorik ikastetxe horretan sartzeko.

II.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimena eman dio Zubi Zaharra Ikastolari 2003/2004 ikasturtetik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteko. DBHko D eredua Balmasedan izateak ahalbidetuko du familiek beren seme-alabak beste ikastetxe batzuetara eraman behar ez izatea beren heziketa-zikloarekin jarraitzeko.

III.- Ikastolak ziklo hori irakasteak eragingo du: ikasle gehiago izatea, gela gehiago prestatu eta hornitu behar, eta, horren ondorioz, mantentze-gastuak handitzea.

IV.- Kooperatiben araubide juridiko arautzaileak beste ikastetxe batzuk ez dituzten ezaugarriak ditu. Desegite- eta likidazio-kasuan bezala, Euskadiko Kooperatiben 4/93 Legearen 94. artikulua arabera, zorrak ordaindu eta funts banagarriak itzuli ondoren, sozietatearen gainerako ondasunak Euskadiko Kooperatiben Kontseilu

I.- Zubi Zaharra Ikastola Sociedad Cooperativa, es titular de un centro educativo concertado, que oferta modelo lingüístico D en los niveles de educación Infantil, Primaria, Haurtzaindegia y D.B.H. para la zona de Balmaseda y su comarca. Los criterios de acceso a Zubi Zaharra Ikastola, respetan el principio de igualdad sin que exista discriminación para el acceso a la educación en dicho centro.

II.- El Departamento de Educación del Gobierno Vasco, ha reconocido la autorización a Zubi Zaharra Ikastola, para la impartición a partir del curso 2003/2004 de la enseñanza correspondiente a Enseñanza Secundaria Obligatoria. La implantación de ESO en Balmaseda en modelo D, permitirá a las familias no tener que desplazar a sus hijos/as a otros centros para continuar su ciclo formativo.

III.- La impartición de dicho ciclo por parte de la Ikastola supone un incremento de los alumnos, la necesidad de habilitar más aulas y, como consecuencia de ello, el aumento de los gastos de mantenimiento.

IV.- En el régimen jurídico regulador de las cooperativas concurren características que no se dan en otros posibles titulares de centros de enseñanza. Como es el caso de disolución y liquidación de las mismas, en el que según el artículo 94 de la Ley 4/93, de Cooperativas de Euskadi, una vez satisfechas las deudas y reintegrados los fondos de carácter repartible, el resto del

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus

Gorenaren esku jarri behar dira, Euskal Administrazio Publikoaren organo den aldetik.

haber social se debe poner a disposición del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, órgano de la Administración Pública Vasca.

Hitzarmen honen xedea da hezkuntza-zerbitzuaren funtzionamendu-gastu arruntak finantzatzea, honako artikulua hauen arabera:

El presente convenio surge para financiar los gastos corrientes de funcionamiento del servicio educativo prestado, con el siguiente articulado:

Lehenengoa: Balmasedako Udalak konpromisoa hartu du 288 €-ko ekarpena egiteko (eta 45.000,00 € arte, gehienez), 2024ko urtarrilaren 1ean Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan edo DBHn matrikulatutako ikasle bakoitzeko. Hori guztia, aurrekontu-partida honen kontura: 2024 11 323 47100 irakaskuntza-instalazioak, Zubi Zaharra Ikastolak erabiltzen duen eraikinean hezkuntza-jarduera gauzatzeagatik sor daitezkeen gastuak finantzatzeko. Zubi Zaharra Ikastolak, diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, aldezturik matrikulatutako ikasle-kopurua ziurtatu du.

Primero: El Ayuntamiento de Balmaseda se compromete a aportar una cantidad de 288 €, hasta un máximo de 45.000,00 € consignados en la partida 2024 11 323 47100 instalaciones docentes transferencias IKASTOLA del presupuesto general de este Ayuntamiento, por alumno matriculado en Educación Infantil, primaria o E.S.O. el 1 de enero del año 2024, para financiar los gastos que se puedan generar por el ejercicio de la actividad educativa en el edificio que usa Zubi Zaharra Ikastola. Para el cálculo de la cantidad a subvencionar Zubi Zaharra Ikastola previamente ha certificado el número de alumnos matriculados.

Zubi Zaharra Ikastolak hezkuntza-itunaren moduluak finantzatzen ez dituen gastuetara bideratuko du udal-ekarpena. Udalaren ekarpena ez da erabiliko Bizkaiko lurraldetik kanpoko garraio- eta bidaia-gastuak finantzatzeko.

Zubi Zaharra Ikastola destinará la aportación municipal a gastos que no estén financiados por el módulo del concierto educativo. No se destinará la aportación municipal a financiar gastos de transporte ni de desplazamiento fuera del territorio de Bizkaia.

Bigarrena: Balmasedako Udalak aurrekontu-partidak sortu ditu, 2024. urteko aurrekontuan, gastu horri aurre egiteko beharrezkoa den kredituaz.

Segundo: El Ayuntamiento de Balmaseda ya ha creado las partidas presupuestarias necesarias para dotar el Presupuesto del

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus

www.balmaseda.eus

año 2024 del crédito necesario para acometer dicho gasto.

Jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, Udalarena eta Eusko Jaurlaritzarena, ez da inola ere diruz lagundutako gastuaren zenbatekoa baino handiagoa izango, eta, horretarako, zinpeko aitorpena eta Eusko Jaurlaritzaren ebazpenen kopia aurkeztu beharko du.

En ningún caso el importe de las subvenciones recibidas, del Ayuntamiento y del Gobierno Vasco, será superior al importe del gasto subvencionado, debiendo presentar declaración jurada a tal efecto y copia de las resoluciones de concesión del Gobierno Vasco.

Hirugarrena: Udalak emandako dirulaguntza justifikatu egin behar du Ikastolak, eta hezkuntza-itunaren araubideak bermatzen ez dituen funtzionamendu-gastu arruntetarako erabili behar du. 2025ko urtarrilaren 15ean, justifikatzeko epea amaitzen da, eta gastu horiek aurrekontu-ekitaldian zehar justifikatu ahal izango ditu. Sei hilean behingo bi justifikazio aurkeztuko ditu, urtariletik ekainera bitarteko gastuetarako, gehienez urriaren 31ra arteko epean, eta uztailetik abendura bitarteko gastuetarako, 2025ko urtarrilaren 15era arteko epean.

Tercero: La ayuda económica otorgada por el Ayuntamiento a la Ikastola debe ser objeto de justificación; debiendo destinarse la misma a gastos corrientes de funcionamiento no cubierto por el régimen del concierto educativo. El plazo de justificación termina el 15 de enero de 2025, pudiendo justificarse dichos gastos a lo largo del ejercicio presupuestario. Se presentarán dos justificaciones semestrales, para los gastos de enero a junio, con un plazo de presentación máximo hasta el 31 de octubre, y para los gastos de julio a diciembre con un plazo hasta el 15 de enero de 2025.

Laugarrena: Dirulaguntzaren zati bat edo osoa ordaindu ahal du dirulaguntza justifikatu aurretik, itzultzeko betebeharrei buruz xedatutakoa baztertu gabe.

Cuarto: Parte o la totalidad del pago de la subvención podrá realizarse con anterioridad a la justificación de la subvención, sin perjuicio de lo dispuesto en cuanto a las obligaciones de reintegro.

Justifikatutako gastuen ordainketa % 20 izango da hitzarmen hau sinatzen denean, % 40 1. Justifikazioarekin batera, eta gainerako % 40 2. justifikazioaren ondoren. Justifikazioa egingo da jatorrizko fakturen eta horien

El pago de los gastos justificados será del 20% a la firma del presente convenio, un 40% con la 1ª justificación y el 40 % restante tras la 2ª justificación realizada, mediante facturas originales y copia, siendo devueltas aquellas una vez examinadas.

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus

kopiaren bidez; aztertu ondoren itzuliko dira.

Zubi Zaharra Ikastolak diruz lagun daitezkeen gastu guztiak ordaindu dituela egiaztatzen duten fakturak eta ordainketa-agiriak hartuko dira justifikazio-bidetzat. Gastuen justifikazioa hurrengo urteko urtarilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko du.

Se entenderá como medio de justificación facturas y documentos de pago que acrediten el abono efectuado por Zubi Zaharra Ikastola de todos los gastos subvencionables, debiéndose presentar la justificación de gastos antes del 15 de enero del año siguiente.

Ezin izango da dirulaguntza ordaindu onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean edo itzulketa bidezko ebazpenagatik zorduna den bitartean. Betebehar horiek betetzen dituelako ziurtagiria aurkeztu beharko du.

No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto el beneficiario no se halle al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro. Lo cual deberá ser acreditado a través de una certificación del cumplimiento de las antedichas obligaciones.

Bosgarrena: Udal Kontu-hartzaileak eskumena du kontrolatzeko Balmasedako Udalaren aurrekontutik Zubi Zaharra Ikastolari emandako dirulaguntzak behar bezala erabiltzen direla eta zertarako erabiltzen diren.

Quinto: El control de la correcta utilización y destino de las ayudas económicas con cargo a los fondos del municipio de Balmaseda que percibe Zubi Zaharra Ikastola es competencia de la Intervención municipal.

Dirulaguntza bateragarria da onuradunak helburu bererako jasotzen duen beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin, edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuak, Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundek emanda.

La subvención será compatible con cualquier otra subvención, ayudas, ingresos o recursos que para la misma finalidad perciba el beneficiario, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste dirulaguntza batzuekin batera hartuta, ezingo da izan,

El importe de la subvención otorgada en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aislada o en concurrencia con otras

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus

inola ere, erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

subvenciones, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

Seigarrena: Ikastolak konpromiso hauek hartu ditu Balmasedako Udalarekin:

Sexto: La Ikastola se compromete con el Ayuntamiento de Balmaseda a lo siguiente:

a. Euskara sustatzea Balmasedako udalerrian, bai ikastolako esparruan, bai Balmasedako Udalak horretarako bultzatzen dituen proiektuetan.

a. Promover y fomentar el euskera en el municipio de Balmaseda, tanto en el ámbito de la Ikastola como en los proyectos que a tal fin impulse por su parte el Ayuntamiento de Balmaseda.

b. Une honetan, Euskara sustatzeko plana da Balmasedako Udalak bultzatu nahi duen proiektu nagusia. Hori dela eta, Zubi-Zaharra Ikastolak plan hori lantzen eta garatzen laguntzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, Euskararen Aholku Batzordean parte hartzeko aukera eskaini du, bai plana egiteko, bai planaren jarraipena egiteko.

b. Siendo el Plan General de Promoción del Uso del Euskera el principal proyecto que el Ayuntamiento de Balmaseda se dispone a impulsar en este momento, la Ikastola Zubi-Zaharra se compromete a colaborar en su elaboración y en su posterior desarrollo; para ello se ofrece a formar parte del Consejo Asesor del Euskera, tanto para la elaboración como para el seguimiento del Plan.

c. Zubi-Zaharra Ikastolak Euskara Sustatzeko Plan Nagusiaren hiru helburu estrategikoak lortzen lagunduko du, hau da, euskararen transmisioa bermatzeko proiektuetan, non euskararen erabilera sustatu nahi den, batez ere proiektu horien hartzaileak ikasleak, gurasoak edo Balmasedako gazteak direnean.

c. La Ikastola Zubi-Zaharra participará en la consecución de los tres objetivos estratégicos del Plan General de Promoción del Uso del Euskera, esto es: en los proyectos destinados a garantizar la transmisión del euskera, en los que persiguen el fomento del uso del euskera, sobre todo cuando el público receptor de dichos proyectos lo constituyan el alumnado, los padres y madres o el

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus

conjunto de la población joven de Balmaseda.

D. Balmasedako Udalak garatzen dituen partaidetza-prozesuetan laguntzea.

D. Colaborar en los procesos participativos que desarrolle el ayuntamiento de Balmaseda.

Zazpigarrena.- Hitzarmena betetzen dela ziurtatzeko organoa.

Séptimo.- Órgano de control y vigilancia del cumplimiento del convenio.

Balmasedako Udalak eta ZUBI ZAHARRA IKASTOLAK hitzarmen honetako hizpaketak betetzen direla ziurtatzeko organoa eratzeke konpromisoa hartu dute.

El Ayuntamiento de Balmaseda y ZUBI ZAHARRA IKASTOLA se comprometen a formar un órgano de control y vigilancia del cumplimiento de las estipulaciones del presente convenio.

Organo hori osatuko dute: ZUBI ZAHARRA IKASTOLako ordezkari batek eta Hezkuntza arloko zinegotzi arduradunak edo bera eskuordetzen duenak.

Dicho órgano estará compuesto por un representante de ZUBI ZAHARRA IKASTOLA y el/la Concejale responsable del área de Educación o persona en quien delegue.

Hitzarmen honetan ezarritakoa behar bezala betetzen dela zaintzeaz gain, organo hori arduratuko da hitzarmenean araututa ez dagoen beste edozein alderdiri buruz erabakitzeaz.

Además de velar por el buen cumplimiento de lo establecido en este convenio, dicho órgano será el encargado de decidir sobre cualquier otro aspecto que no se encuentre regulado en él.

Zortzigarrena: Udalak Zubi-Zaharra Ikastolako instalazioak erabili ahal izango ditu, horretarako aukerarik badago eta aldeaz aurretik baimena eskatuta.

Octavo: El Ayuntamiento podrá hacer uso de las instalaciones de la Ikastola Zubi-Zaharra, en la medida de las disponibilidades y solicitando permiso con antelación.

I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus

Bederatzigarrena: Hezkuntza eta Euskara zinegotzia Ikastolako Euskara será convocada a las reuniones de Zuzendaritza Batzordearen bileretan la Junta Rectora de la Ikastola. parte hartzeko eskubidea izango du.

Amaiera: Hitzarmenak 2024an izango du eraginkortasuna; edonola, urtero berritu ahal izango da. **Final:** El convenio tendrá eficacia durante el año 2024, no obstante, podrá renovarse con carácter anual.

Hitzarmen honen kopia igorriko zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Se remitirá copia del presente convenio a Gobierno Vasco, Departamento de Educación.

Ados daudela adierazteko, bertaratuek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean. En prueba de conformidad los comparecientes firman el presente convenio en duplicado ejemplar en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Ayuntamiento de Balmaseda

Alfonso San Vicente de la Horra



Ikastola Zubi Zaharra

Alvaro Parro Betanzos



I.F.K.-C.I.F P4810400D

San Severino plaza 1-48800 Balmaseda - T. 946800000 - F. 946102053 - ayto@balmaseda.eus.

www.balmaseda.eus